**EUSKO JAURLARITZA** — **GOBIERNO VASCO**

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**
Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaien Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**
Dirección de Desarrollo Litoral, Puertos y Asuntos Marítimos

# ITSASOKO-LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO ADMINISTRAZIO BAIMENAREN ESKAERA

| (A) | ESPEDIENTE ZK.: | AURKEZPEN ERREGISTROA Administrazioan | SARRERA ERREGISTROA Organo/erakunde eskudunean |
|---|---|---|---|
| | | | |

**(B)**

## ESKATZAILEAREN DATUAK

| Izen-abizenak: | NAN / IFZ / AIZ / Pasaportea: |
|---|---|
| Alazne Txurruka Allika | [redacted]4345[redacted] |

Bere izenean edo honako hau ordezkatuz

| NIzen-abizenak edo sozietate-izena (1): | NAN / IFZ / AIZ / IFK (1): |
|---|---|
| Debako Udala | P2003000C |

Jakinarazpenetarako datu hauekin:

| Hiribidea/kalea/plaza, ataria, zenbakia: | Udalerria: | Lurralde Historikoa: | Posta-kodea: |
|---|---|---|---|
| Portu, 1 | Deba | Gipuzkoa | 20820 |

| Telefonoa: | Helbide elektronikoa: |
|---|---|
| 943192840 | ingurumena@deba.eus |

**(C)**

## HONAKO HAU ADIERAZI DU:

**ADMINISTRAZIOKO BAIMENA** jaso nahi du kostaldeko 100+20 metro koadroko azaleran itsas-lehorreko jabari publikoa okupatu ahal izateko honako kokapen honetan:
Debako Santiago hondartza eta hondartzako pasealekuan

| Udalerri honetan (2): | Deba |
|---|---|
| Jarduera hau egin ahal izateko: | Harea mugitzea eta harearentzat hesiak jartzea |
| Denbora-tarte honetan: | 2025/2026ko negutik 2028/2029 negura arte. Azarotik martxora arte |
| Hasiera-data: | 2025.11.21 |

Horretarako, ondasun edo eskubideak onura publikokotzat jotzeko eskatzen da, ☐ ez / ☐ bai (3), aldi baterako okupazioa edo desjabetzea dela-eta, eta, horregatik, Kostaldeei buruzko 1988ko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 64. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa beteko da.

**(D)**

## Eskatzaileak aipatu nahi dituen BESTE datu / ohar batzuk

**(E)**

## ESKATZEN DU

Dagozkion izapideak egin ondoren, itsasoko-lehorreko jabari publikoko eremu hori adierazitako baldintzetan okupatzeko **ADMINISTRAZIO BAIMENA** ematea.

Deba (e)n, 2025 (e)ko Noviembre aren 13 ean

Sinatuta:

**(F)**

## HARTZAILEA

**Eusko Jaurlaritzaren Itsasertzaren Garapenaren, Portuen eta Itsas Gaien Zuzendaritza**
Gipuzkoa **Lurralde-Zerbitzua**

**OHARRA: Datuak bete aurretik, irakurri dokumentuarekin batera jasota dauden jarraibideak**

| | **AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA** (jarri X bat eskaerari gehitutako dokumentazioari) |
| --- | --- |
| **(G)** | ☐ Erakundearen eratze-eskritura.<br>☐ Eskabidea izenpetzen duenaren ahalordea, edo jardungo duen ordezkariaren behar adinako akreditazioa.<br>☒ Teknikari eskudunak sinatutako "oinarrizko proiektuaren" / "eraikuntza-proiektuaren" hiru ale, honako hauek barne:<br>    ☐ Justifikazio-memoria eta deskribapena, eranskinekin.<br>    ☒ Planoak.<br>    ☒ Eremuaren argazki-informazioa.<br>    ☐ Aurrekontua.<br>☐ Azterketa ekonomiko-finantzarioa.<br>☐ Behin-behineko fidantza eratu dela eta "proiektuen azterketari" dagokion tasa ordaindu dela egiaztatzen duen egiaztagiria.<br>☐ Itsasoko-lehorreko jabari publikoaren gaineko ondorioen ebaluazioa.<br>☐ Itsasertzeko dinamikaren oinarrizko azterketa.<br>☐ Ingurumen-inpaktuaren azterketa.<br>☐ Bestelako (4): ………………………………………………………………………………………… |

Alazne Txurruka Allika
17:01:14 2025.11.13
'00'01+



## ITSASOKO-LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO ADMINISTRAZIO BAIMENAREN ESKAERA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

### I. ARGIBIDE OROKORRAK.

- Idatzi letra larriz, eta ziurtatu datuak argi eta garbi irakur daitezkeela.
- Azalpen zabalagoa egin nahi baduzu, inprimaki honi egokitzat jotako behar adina orri gehi diezazkiokezu; kasu horretan, sinadurak orri guztietan agertu beharko du.
- Eskaera Administrazioan noiz aurkeztu den egiaztatzen duen agiria jaso nahi baduzu, aurkeztu bi kopia.
- Ez ahaztu inprimakia sinatzea.

### II. INPRIMAKIA BETETZEKO ARGIBIDE ESPEZIFIKOAK.

(A) ATALA. Administrazioak bete beharrekoa.

(B) ATALA. (1) Eskaera pertsona juridiko baten ordezkari gisa egiten bada, erakundearen eratze-eskrituraren eta ordezkariaren ahalordetze-eskrituraren kopia legeztatuak aurkeztu beharko dira. Jatorrizko eskriturak eta kopia sinpleak ere aurkeztu ahal izango dira, aurkezteko unean bertan alderatzeko. Pertsona fisiko baten izenean jardunez gero, ordezkaritza behar beste egiaztatu beharko da, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz, fidagarritasunez jasota gera dadin.

(C) ATALA. (2) Tartea udalerri batekoa baino gehiagokoa bada, zerrendatu udalerri horiek, probintzia adieraziz. (3) Zenbait ondasun edo eskubide onura publikokotzat jotzeko eskatzen bada, eskaera-orrian aipatuko dira, eta behar bezala zehaztu beharko da derrigor erantsi beharreko "eranskinean".

(D) ATALA. Nahi izanez gero gehi ditzakezun beste datu edo ohar batzuk.

(E) ATALA. Inprimakia bete deneko tokia eta data, eta eskaera egin duenaren sinadura.

(F) ATALA. Bete okupazioa kokatuta dagoen Lurralde Historikoaren izena.

(G) ATALA. Eskatzaileak "X" bat jarri beharko dio eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioari.

(4) Zerrendan ageri ez diren dokumentuen kasuan, jarri "X" bat "Beste dokumentazio bat" atalean, eta bete ondoren horien izena.

**AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREKIN LOTUTAKO AZALPENAK:**

Derrigor:

- Oinarrizko proiektuaren edo, hala badagokio, eraikuntza-proiektuaren hiru ale. Oinarrizko proiektuak honako dokumentu hauek izango ditu, eta teknikari eskudunak sinatu beharko du:
  - Justifikazio- eta deskribapen-memoria, eranskinekin, hala badagokio. Bertan, espresuki zehaztu beharko da Kostaldeei buruzko Legean eta aplikatu beharreko gainerako arau espezifikoetan xedatutakoa betetzen dela, bai eta proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak eta oinarrizkoenak, lanak gauzatzeko programa eta, dagokionean, hondakin-urak husteko sistema ere.
  - Honako plano hauek: kokapen-planoak, kokapenaren araberako eskala egokian, mugaketa eta okupatu beharreko eremua adierazita (1/5.000 eskalan gutxienez), ingurunearen sailkapena eta hirigintza-erabilerak adierazita; egungo egoeraren plano topografikoa (1/1.000 eskalan gutxienez); goitiko bista orokorra (proiektatutako instalazioak eta obrak jasota izan beharko ditu, eta itsasoko-lehorreko jabari publikoan erabili edo okupatu beharreko azalera eta mugaketa zehaztuta izan beharko ditu; altxaeren eta sekzio bereizgarrien planoak, horiek definitzeko beharrezkoak direnean, obren eta instalazioen geometriarekin.
  - Eremuaren argazki-informazioa.
  - Aurrekontua, obra-unitate eta kontu-sail adierazgarrienen balorazioarekin.
  - Natura 2000 Sareko espazioetan edo ingurumena babesteko neurriak dituzten beste edozeinetan izan dezakeen eragina. Afekzio hori gertatzen bada, proiektuak beharrezko azterketa biologikoa barne hartuko du.

- Ustiategiaren bilakaera zehaztuko duen azterketa ekonomiko-finantzarioa (Administrazioak instalazioak zuzenean ustiatu behar dituenean izan ezik). Kasu horretan, amortizazio-epearen hainbat alternatiba hartu beharko dira kontuan, eta honako hauek jasoko ditu:
  - Aurreikusitako diru-sarreren zerrenda, publikoak ordaindu beharreko tarifekin eta, hala badagokio, diru-sarrera horiek osatzen dituzten faktoreen banaketa, etorkizunean berrikuspenak egiteko oinarri gisa erabili ahal izateko.
  - Gastuen zerrenda, proiektuen eta obren gastuak eta ordaindu beharreko kanonen eta zergen gastuak barne, bai eta kontserbazio-gastuak, energia-kontsumoarekin lotutako gastuak, langileen gastuak eta ustiatzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk ere.
  - Baldin badaude, ezarri beharreko neurri zuzentzaileen ondoriozko kostuak, bai eta neurri horien eraginkortasuna egiaztatzeko jarraipen-planaren ondoriozko gastuak ere.
  - Errentagarritasun garbiaren ebaluazioa, zergen aurretik.

- Behin-behineko fidantza eratu dela eta "proiektuaren azterketari" dagokion tasa ordaindu dela egiaztatzen duen egiaztagiria.

Hala dagokionean:

- Proiektatutako jarduerek itsasoko-lehorreko jabari publikoan aldaketa handia eragin badezakete, aldez aurretik horren gaineko eraginak ebaluatu beharko dira. Ebaluazio horretan, proiektatutako jarduerek prestaketa-lanetan, gauzatzean eta ustiapenean izango duten eragina aztertu beharko da eta, hala badagokio, beharrezko neurri zuzentzaileak ere jaso beharko dira.
- Proiektatutako jarduerek itsasoan edo itsasoko-lehorreko eremuan esku-hartzeak egiteko aurreikuspenak jasotzen badituzte, "itsasertzeko dinamikaren oinarrizko azterketa" aurkeztu beharko da (876/2014 Errege Dekretuak onartutako Kostaldeko Araudi Orokorraren 93 artikulua).
- Aplikatu beharreko araudiak hala xedatzen badu, "ingurumen-inpaktuaren azterketa" aurkeztuko da.
- Ondasun edo eskubide jakin batzuen "onura publikoko aitorpena" ere eskatzen bada, geroago aldi baterako okupatzeko edo desjabetzeko, "desjabetzeari edo aldi baterako okupazioari buruzko eranskina" ere aurkeztu beharko da, eragina jasango duten ondasun edo eskubideen zerrenda jasota.